

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Asteartea, 2011eko irailaren 20a. VIII. urtea. 2.275. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

‘Bateragune auziko’ epaia «bereziki larria» dela salatu dute

Euskal gehiengo sindikalak deituta Tolosako Trianguloan, elkarretaratzea egin dute 03



Larunbateko manifestaziora joateko deia egin zuten bilkuran. E. MAIZ

Jolasen bidez antzezten ikasteko aukera, Tolosan

Zabalik dago jada kultur etxean eskaintzen den antzerki tailerrean izena emateko epea 02

Iker Telletxea Laskorain KEko kidea

«Bi baja garrantzitsu izango ditugu aurten, azken bi kapitainek talde utzi baitute»

Denboraldia maila altuago batean hasiko dute Tolosako horitxoek: Bigarren B mailan 06



→ **145 parte hartzaile Leitzako Maratoi Erdian.** Natur bideen Europako Egunaren harira, Mendi Bizikleta Martxa eta V. Maratoi Erdia izan zituzten herenegun Leitzan. Guztira 400 lagun inguruk hartu zuten parte. Maratoi Erdian nesketan Uxue Murolas izan zen garaile, eta mutiletan Roberto Jimenez izan zen azkarrena. 04



Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Promozio berria

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A



Antzerki tailerreko kideak, *Criaturas* lanaren aurkezpenean, pasa den udaberrian. HITZA

Irudimena eta norberaz barre egitea izango dira antzerki tailerraren ildo nagusiak

Astelehen eta asteazkenetan biltzen dira, eta zabalik da jada datorren ikasturterako izena emateko epea

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako kultur etxeko antzerki tailerrean parte hartzeko matrícula epea zabaldu dute. Joan den ikasturtean «aniztasuna nagusi» izan zela azaldu dute arduradunek, eta beren bereizgarri nagusienetarikoa dela diote.

Antzerki tailerrean izena emateko gogoia izaten duten gehienek, beldur berak dituztela azpimarratu dute tailerreko arduradunek: «Gaitasunik ba duten edo ez izaten da zalantza, eta adinagatik sortutako aurreiritziak ere ohikoak izaten dira». Antzerki tailerra, ordea, talde heterogeneoa dela nabarmendu dute antolatzaileek, eta heldu zein gazteen-tzako lekua dagoela bertan.

Astelehen eta astearteko biltzen dira antzerki tailerreko kideak, kultur etxean. Beren lan metodologiak lau ildo nagusiri jarraitzen die, eta «antzerkiaren oinarria jolasa» denez, horren inguruan lantzen dituzte hamaika ariketa.

Jolasa, antzerkiaren muina

Tailerrean jolas egitea ohikoa da azaldu dutenez. Tailerreko kideak «gure barnean dugun umearekin bat egitea oso lan garrantzitsua» dela diote. Horrela beraz, jolasen bidez bat-batekotasuna, inprobisazioa eta berezko indarra azaleratzea izaten dute helburu.

Norberaz barre egitea

Bakoitzak bere buruaz barre egiteak «norberaren ikuspuntu objektiboago bat» lortzea dakarrela diote antzerki tailerreko arduradunek. Aktoreak eskuratu beharreko trebetasunen artean hauxe garrantzizkoenetakotzat dute adituek, eta Tolosako tailerrean ere helburu garbietako bat da.

Irudimena, aktorearen gakoa Arduradunen arabera, antzerki tailerreko helburu nagusia aktoreak bere irudimena lantzea da. «Izena ematen duen jende asko kezkatuta egoten da memoria arazoak direla eta; testuak ikasteko gaitasunik ez dutela izango uste dute», baina tailerrean burutzen dituzten ariketen bidez, emaitza oso onak lortzen dituzte: «Irudimena lantzeak, azken finean, lanaren azken emaitza irudikatzea errazten du, eta oso lagungarria da».

Kurto amaierako obra

Eguberrietako oporraldiaren ondoren, antzerki tailerra obra bat prestatzen hasten da. Ordura arte, partaideek hainbat proposamen egiten dituzte, eta hauetako bat aukeratzeko dute, entseguak egiten hasteko. Modu honetara landu zuten aurreko ikasturtean ere, *Criaturas* antzezlan. Datorren irailaren 30ean, berriz ikusteko aukera izango da 22:30ean, kultur etxean.

Gutunak

Eskerrik asko!

Leitzako txupinazioa dela eta, Espainiako Auzitegi Nazionalera deklaratzera joan diren Oier Eizmendi, Lurdes Juantorena eta Saioa Iraolaren esku-titza, herritarren babesa eskertzeko.

Lurdes, Saioa eta Oier gara, Leitzako txupinazioaren kontura Madrilgo Auzitegi Nazionalera deituak izan garen herritarrak. Idatzi hau egin dugu, gertatutakoaren azalpen txiki bat emateko eta jasotako babesa eskertzeko.

Arrazoi desberdinak tarteko, aurtengo Leitzako pestetako txupinazioa berezia izan da gu hirurontzat: legealdi berriko aurreneko txupinazioa zelako eta Bilgune Feministak bota zuelako. Baina, abuztuaren 10eko festen hasierako ekitaldiak zoragarri joan baziren ere, hurrengo egunean komunikabideetan ezjakintasunetik kontatutako kronika irakurtzeko aukeraz gauden. Kronika hau Yolanda Barcinak eta *Diario de Navarra* elkarrekin prestatutako Leitzaren eta bertako herritarren kontrako eraso berri bat izan zen, gertatutakoa itxuraldatu eta euren interesen arabera erabiltzeko.

Ondorengo egunetan izan genituen berri guztiak prentsaren bidez jasotak izan ziren: auzipe-tuak ginela eta Madrilera joan behar genuela, Espainiako Auzitegi Nazionallean deklaratzera, «terrorismoari gorazarre» egitea leporatuta, besteak beste. Komunikabideetatik berriak jaso, eta hortik hiru egunetara

jaso genituen zitzakioak. Gure ustez hau ere onartezina da. Honek argi erakusten du komunikabide gehienak indar politikoaren menpe daudela. Eta bide batez, deklaratu aurretik eta ondoren jasandako intoxikazio mediatikoa salatzen dugu. Berritro ere testuingururik ateratako esaldi hutsalei garrantzia eman baitiete.

Egunak, ez ziren berehala pasatzen, ezta gure gainean zein Leitzako herritarren gainean komunikabideetan esandakoak. Baina gure herriak, herritarrek, lagunek, familiakoek, berriro ere erakutsi dugu elkartasunak eta herritarren arteko babesak ez duela etenik. Adibide ditugu aurreko asteeta eginiko mobilizazioetan jendeak eman duen babesa, norberari animoak eta babesa eskaintzera etorri zaizkigun herritarrak, eragileak, sindikatuak zein alderdi politikoak, eta abar. Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

Jasotako babesa ikaragarria, zoragarria eta ezinbestekoa izan da: hirurok, burua tente, irribarre txikia ahoan eta bihotza lasai izan dugu Auzitegi Nazionalera joateko. Eta halaxe egin dugu buelta. Lanean jarraitzeko gogoa eta etortzen denari aurre egiteko indarrez.

Besterik gabe, eskerrik asko guztiagatik eta ahalik eta lasterren honekin amaitzea espero dugu.

Besarkada estu bat guztioi.

■ Lurdes Juantorena Baleztena, Oier Eizmendi Astibia eta Saioa Iraola Urkola. Leitza.

Atzeritartasunaren legeari buruzko saioa izango da gaur

Tolosaldea Garatzenek eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako informazio bilera, 18:00etan izango da

I. Urkizu Tolosa

Gaur, Tolosako kultur etxean, atzeritartasunaren legeari buruzko informazio saioa izango da. Tolosaldea Garatzen eta Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzaren artean antolatutako dute legearen edukia, eta atzerriko biztanleen gizartetako prozesuan legeak dituen eragin prakti-

koak ere argituko dituzte. Saio hau ez da atzeritarrentzat soilik izango. Atzerriko jendearekin harremanetan dauden herritarrek ere informazio baliagarria eskuratu dute.

Horrela beraz, 18:00etatik 20:00etara bitarte, abokatu bat izango da hizlaria. Alde batetik, atzeritartasunaren inguruko legegari buruz hainbat datu emango ditu; bestalde, lege honek pertsona baten egunerokoan izan ditzakeen eraginak ere azalduko ditu: bizitzeko eta lan egiteko baimeak, berritzeak, familiak biltzea, ikasketak, nazionalitatea, pertsona komunitarioen eta senideen araudia, zigorrak eta kanporatzeak, besteak beste.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, aldi baterako Erdi Mailako Gazte Teknikaria kontratatu nahi du.

Cinarrak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udalarekiko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrrako 6 A zokian, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaraer aurkezteko epea 2011ko irailaren 28an, 13:00tan, bukatzen da.

Tolosan 2011ko irailaren 14an.

Aldaketa

Ibai Iriarte San Vicente

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hainbat herritarrek, Trianguloa plazan egin zuten elkarretaratzearekin bat egin zuten. E. MAIZ

«Jarduera politikoa ezin da inor espetxerako arrazoia izan demokrazia batean»

‘Bateragune auziko’ epaiaren aurka, euskal gehiengo sindikalak deituta elkarretaratzea egin zuten Trianguloan

Enertiz Maiz Tolosa

Euskal gehiengo sindikala osatzen duten ELA, LAB, STEE-ELAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian, Trianguloa plazan, «*Bateragune auziko*» epaitu eta kondenatuak berehala eta baldintzarik gabe aska ditzaten» eskatzeko. *Epai politikorik ez, eskubide guztiak guztiontzat* lelopean, hainbat lagun eta ordezkari elkartu ziren.

Bertaratuek, auzipetuek garatu izan duten jarduera politikoa «ezin da, inondik ere, sistema demokratiko batean inor espetxeratzeko arrazoia izan», esan zuten.

«Horregatik, epaituei gure elkartasun eta babesa helarazi nahi diegu», gaineratu zuten.

Gehiengo sindikalak euskal gatazkaren konponbide demokratikoarekiko konpromisoa berretsi zuten. Horretarako, euskal langilerari dei egin zioten, «helburu honekiko bere konpromisoa areagotu dezan», eta «*Bateragune auziko*» kasuan prozesatutako pertsonen aurkako epaia gertakari bereziki larria da, eta lekuz kanpo dago, are gehiago atxilotutako pertsonak gatazka hau gainditzeko lanean ibili direlako euren praktika politikotik», azpimarratu zuten.

Era berean, «beharrezkoa da Estatuaren jarduerak ardaztu dituzten errepresio epaia justiziaren instrumentalizazio estrategiak gainditzeko», esan zuten. «Estrategia horien emaitza oraingoan ere epaia guztiz bidegabekoa eta tokiz kanpokoa izan da», gaineratu zuten. Honi lotuta, «euskal gizarte

adierazpen eta parte hartze politikorako eskubideak babestuko dituzten normalizazio politikorako bideak eskatzen ari da», esan zuten. Bukatzeko, gizarteari orokorrean, eta bereziki langile klaseari dei egin zioten, «epai honen aurkako gaitzespena adieraz dezaten».

Autobusez Bilbora

Bateragune Auziko epaia «irmoki» salatzeako, larunbatean, hilaren 24ean, manifestazioa nazionala egingo da Bilbon. Hainbat alderdi politikok, sindikatuk eta eragileek deitu dute manifestazioa, eta *Epaiketarik ez, zigorririk ez, eskubide guztiak guztiontzat* lelopean egingo da.

Herritarrei Bilbora joateko deia eginez, autobusa jarri dute Alegialdean. Autobusa 15:00etan Amezketatik aterako da, eta 15:30ean Alegiatik. Apuntatzeko zerrendak betiko lekuetan jarri dituzte.

→ Laburrak

Bigarren eskuko azokako materiala, udaletxera

IBARRA › Ibarra Udalak, Villabonan egingo den Mugikortasunaren Bigarren Eskuko Azokarekin bat egiten du. Hori dela eta, herritarrek saltzen jarri nahi duten materiala udaletxera eramane beharko dute. Materiala eramateko azken eguna hilaren 23a, ostirala, izango da.

Euskal Jaia antolatzeak bilera gaur, 19:30ean

IKAZTEGIETA › Urriaren 8an, larunbatean, Euskal Jaia egingo dute ikaztegiaren. Egun osoko festa antolatzen ari dira: azoka, musika, bazkaltzeko txekorra buruntzian erreta, dantza, herri kirolak, ... Festa guztia antolatzeak jendea behar da, baita egunean bertan laguntzeko ere. Asteartero, 19:30ean, biltzen dira udaletxean. Beraz, herritar guztiak gonbidatuta daude kultura batzordeak gaurko deitu duen bilera.

Txintxarri abesbatza gaur hasiko da eztarriak berotzen

Gaur hasiko dute ikasturte berria; astearteetan eta ostiraletan 21:00etan elkartzeko dira

E. Maiz Alegia

Alegiako Txintxarri abesbatzak gaur ekingo dio ikasturte berriari. Urteari begira dituzten kantu emanaldiak prestatzeko, uztaile bitarte egingo dituzte entseguak. Txintxarri Txikiokak berri, ostiralean hasiko dira entseatzeko.

Helduek astearteetan eta ostiraletan egingo dituzte entseguak 21:00etatik aurrera. Garbiñe Orbegozo alegiarrak zuzentzen du

ahots nahasietako helduen koria. Era guztietako musika lantzen dute: euskal folklorea, euskal harmonizazio modernoak, gossela, musika sakroa, habanera, brasildarrak, ... Abesbatzan kantatzeko gogoia dutenek abesbatzako norbaitekin jarri beharko dute harremanetan.

Udazkeneko emanaldien artean, lehendabizi herriko kultur batzordeak antolatutako Kantu jiran parte hartuko dute. Urtero bezala Txintxarri Eguna egingo dute. Igeldoko Lezkarri abesbatzak gonbidatuta, Igeldon kontzertu bat eskainiko dute, eta horrez gain, kanpoko abesbatza baten bisita ere jasoko dute; Barzelonako Begues herriko Montau abesbatzak emanaldia eskainiko du urriaren 29an, Alegian.

Billabona Futbol Eskolan izena eman daiteke

Izena emateko udal liburutegian egongo dira bihar eta etzi; gurasoen bilera ostiralean izango da

E. Maiz Amasa-Villabona

Billabona Futbol eskolan parte hartu nahi duten haurrek oraindik izena emateko aukera izango dute. Bihar eta etzi, 19:00etatik 20:00etara, udal liburutegian egongo dira.

2.000. urtetik 2003. urtera, biak barne, jaiotako haurrei zuzendua

dago eskola. Futbol eskolan izena eman duten haurren gurasoek, ostiralean 19:00etan bilera izango dute, Oladerra kiroldegian. Ostirala izango da, diru sarrera edo datuak betetzeko azken eguna.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Lan bila.** Neska euskalduna etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Interesa duenak, 678 889 791 telefono zenbakira deitu beharko du.

Villabonako saiorako lehen txartelak ihes egin dio Agirreri

‘Mantxi’ eta Izagirreren atzetik, 482,5 puntu eskuratuz hirugarren sailkatu zen Amaia Agirre, Andoainean

E. Maiz

Amaia Agirre billabonatarak larunbatean izan zuen Gpuntuko final zortzirenetako kanporaketa. Guztia ematera joan bazen ere, hirugarren postuarekin konforma

tu behar izan zuen. 482,5 puntu eskuratu zituen.

Urriaren 23an Villabonan jokatu den final laurdenetarako zuzeneko txartela, Iñigo Manzisidor *Mantzik* eskuratu zuen. 500 puntu eskuratu zituen, eta bigarren Iñigo Izagirre sailkatu zen 494 puntu poltsikoratuz. Azkoitiako saiotik *Xamoak* eskuratu du aurrera egiteko txartela.

Gainerakoak, puntuazio-dantzen arabera pasako dira final laurdenetara. Beraz, itxaron egin beharko dute, hurrengo bost kan-

poraketetan zer gertatzen den ikusteko. Amaia Agirreri ere pazientzia itzarrotea egokitu zaiola.

Igandean Lazkaon

Asteburuan beste bi kanporaketa jokatu dira: Eibarren eta Lazkaon. Igandekoa Lazkaon izango da, eta bertan eskualdeko hiru bertsolari izango dira: Unai Muñoz berrobitarra, Beñat Iguaran billabonatarra eta Adur Gorosti-di abaltzisketarra. Hauez gain, Nahikari Gabilondo, Beñat Lizaso eta Iban Urdangarin ariko dira.

Eguraldiak lagundu ez arren, «gustura»

Mendi Bizikleta Martxa eta Maratoi Erdia izan ziren herenegun; 400 lagun inguruk hartu zuten parte

Iligo Terradillos | Leiztaldea

Natur bideen Europako Egunearen harira, Mendi Bizikleta Martxa eta Maratoi Erdia izan ziren herenegun Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta. Eguraldiak ez zuen gehiagorik lagundu, baina, dena den, antolatzaileek gustura azaltu dira ekimenek izandako erantzunarekin.

V. Maratoi Erdian 145 lagunek hartu zuten parte. Gizonetakoetan Roberto Jimenezek irabazi zuen, eta emakumeetakoetan, berriz, Uxue Murulasek.

VIII. Mendi Bizikleta Martxan,

♦ Sailkapena

GIZONEZKOAK

1. Roberto Jimenez (1:16:25 / Avila)
2. Xeser Urdampilleta (1:16:38 / Oñati)
3. Gonzalo Sukunza (1:16:46 / Lasarte-Oria)

EMAKUMEZKOAK

1. Uxue Murulas (1:25:44 / Iruñea)
2. Iratxe Castillo (1:42:53 / Iruñea)
3. Mari Carmen Olaso (1:43:34 / Lasarte-Oria)

bestalde, Andoaindik 150 lagun irten ziren, Leiztaletik 80 lagun eta Lekunberritik Mugironako haurrentzako martxan 14. Ekimenen luntxa, zozketak eta musikaik giroa zuten.




Gizonekoetan lehen hiru postuetan geratu ziren maratoi erdiko parte-hartzaileak. «112»

Tolosa



ARITZ LOPEZ BERRIRO ERE ETXEAN

Larunbatean geratu zen aske Aritz Lopez tolosarra. 02:00ak inguruan iritsi zen herria, eta Trianguloan egin zioten harrera sende, lagun eta herriarek. Lopez 2009ko azaroaren amaieran atxilotu zuten, gaste independentisten aurka egindako polizia operazio handi batean. «112»



Bidegoian



AFARIA KULTUR ASTEARI EKITEKO

Larunbatean ekin zioten Bidegoianen kultur asteari. Bertso-kantu afaria izan zuten Goiazko frontoian, Iker Zubeldiarenkin. 70 lagun inguru elkartu ziren bertan, giro ederrean. Gaur Gipukoia Mendiz mendotik mendetara autobusa izango da egun osoan, amatsaldean ipun kontalaria, eta luntzean Jose Luis Kortaren hitzaldia. «112»

Tolosa



HODEI ABESBATZAREN EMANALDIA

Hodei abesbataz kontzertua eskaini zuen larunbatean Eduardo Mokoroa musika eskolan. Altor Iracola artu zen pianoan, eta klarinetearekin, berriz, Luis San Sebastian. Bestalde, Tolosako abesbatzan ikasurte berriari ekin diote. Izena emateko 649 70 12 51 telefono zenbakira daiteke. «112»


Tolosa



OSPITALE PUBLIKOA ALDARRI

Trianguloa plazan izan ziren larunbat goizean Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko Koordinatzaileak kideak herriarekin informazioa banatzeko. «Eskualdeko ospitale bezala» funtzionatu duen ospitalea ez dutela nahi adierazi zuten, «baitok eta eskualdeko ospitale publikoa izango dena». Gaiaren inguruko informazioa eskuratu eta iritziak emateko euren blogera (osasunpublikoa.blogspot.com) sartzeko gonbita ere luzatu zieten herritarrei. «112»

Alegia



HIRU EGUNEZ FESTA

Ostiralean ekin zioten Kalebeherako jalei suziri eta buruhandiei. Hurrengo egunean, urtero bezala, kroa izan zuten. Gaztetxoek nahiz helduek hartu zuten parte, eta ikusmin handia sortu zuen herriaren artean. Gainerakoan, askotariko ekitaldiak izan dituzte hiru egunetan zehar. Horien artean azpiranatzekoak hiru egunetan errepikatutako dute zahargarria, txakoli dastaketa, dantzari txiki saioa, herri bazkaria, bertsolarien saioa edota pala txapelketa. «112»

Tolosa



GARAGARDOZALEEN HITZORDUA

Garagardo zaleek gozatu ederra izan dute asteburu honetan, Tolosako XII. Garagardo Festan. 23 garagardo mota izan dituzte aukeran, eta baita ohiko jakak ere afarietako. Eguraldiak lagundu ez arren, jendea emuz gerturatu da azokara. Bertan 200 lagun inguru aritu dira lanean lau egunetan zehar. Tolosaldea IK7, Tolosa CF nesken txirrindulari taldea, Judo Club Tolosa eta Igarondo Upeleok kirol taldeetako kideak, hain zuzen ere. Bidulako dirua urteko gastuetarako erabiliko dute. «112»

Ibarra



GIRO POLITA EUSKAL HERRIA EGUNEAN

Lizarran, Algortan eta Ibarako herriak hartu zuten larunbatean III. Euskal Herria Egunean, Ibarra. Zazpi herrialde elkartzea helburu duen ekimen honetan hainbat ekitaldi izan zituzten egun osoan. Lehenbizi goizean Ibarako sarreraren harrera izan zuten, eta eguerdian ginkakana —irudiak— egin zuten plazan. Une elkartetarako izan ziren, giro polita sortu zelarik. Ekitaldia egin ostean bazkaria bidu zuten Lizarran, Algortan eta Ibarako parte-hartzaile guztiak. Bazkariaren ostean Lip-dub bat egin zuten, eta festa goizaldera arte jarraitu zuen zuzeneko musikaren laguntzarekin. «112»

Peugeot Sarean, prezioa eta kalitatea parean

Kalitatea: Zehaztu profesionalitate / Doko atxekatu 28 puntutan / Pneumatikotatik bermatuta

Prezioa: Eskatu aurrekontua eta baliabideak gehiago ez dute bako ikusle dute.

Eskuratu ordutegia hemen:

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 14A • 20400 TOLOSA • Tel. 943 650 337 / Fax: 943 652 998 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Iker Telletxea ▶ Laskorain KEren zuzendaritzako kidea

Laskorain ikastolaren talde nagusiak Bigarren B mailan jokatu du aurtan; denboraldi berriari aurre egiteko erabaki gogorrak hartu beharrean izan dira elkarteko kide eta jokalaria.

«Hasieran lagun arteko kontu bat zirudiena mailaz igotzen joan da»

Asier Imaz Tolosa

Areto futboleko, eskualdeko talderik indartsuena bilakatu da Laskorain ikastola. Iazko denboraldi borobilarik esker, aurtan Bigarren B mailan jokatu dute horitxoek. Liga urriaren lehen hasiko da, eta maila berrira nola egokitu diren azaldu du Iker Telletxeak (Tolosa, 1974). Futbolari

ohia, Laskorain Kirol Elkarteko zuzendaritza taldeko kidea da, egun; aurtan erabaki «gogorrak» hartu beharrean izan direla ere aipatu du.

Zer gertatu zen iazko denboraldi amaieran?

16 taldek osatzen genuen gure multzoa, Nazional B mailan. Aurreko urteetan bezala, txapelduna bakarrik igotzen zen. Denbo-

raldia amaitu baino bi aste lehenago, ordea, dei bat jaso genuen, eta bigarrenak igoera kanporaketa bat jokatu zuela esan ziguten. Bigarren amaitu genuenez, Ansoaingo Gazte Berriak taldearen aurka jokatu genuen kanporaketa.

Baina galdu egin zenuten.

Hori da, baina talde nafarrak uko egin zion igoerari, eta federazioetik guri eskaini ziguten postua. Guk onartzea erabaki genuen.

Izen aldaketak ere egon dira aurtengo denboraldian. Zein mailatan aurkitzen zarete orain?

Iaz, Nazional B mailan jokatu genuen, eta Ibarako Lauburu maila bat gorago zegoen, Nazional Mailan. Orain kategorien izenak aldatu dituzte, eta futbol handiaren eredu hartu dute. Lehen Hirugarren mailan aurkitzen baldin baginen, orain Bigarren B mailan aurkitzen gara.

Ibarako Lauburu non jokatu du?

Aldaketa guzti hauekin maila galdu zuen Ibarak, nahiz eta denboraldia zortzigarren amaitu. Aurtan, beraz, Hirugarren mailan jokatu dute ibaritarrek.

Ansoaingarrek arrazoi ekonomikoengatik egin al zioten uko maila igoerari?

Izan daiteke. Aurreko urtean ere igoera kanporaketa eurek irabazi zuten, baina igoerari uko egin zioten.

Aurrekontuan eragin handia al du maila igoera honek?

Zenbakiak begiratzen eta kontuak egiten ibili ondoren, sei mila euroko tartea ikusi dugu. Beste taldeek, duintasunez mailan ibiltzeko, 40.000 euroz hitz egiten dute. Gure kasuan, askoz diru gutxiagorekin urtea pasatzea espero dugu.

Zenbateko aurrekontuaz ari gara hizketan?

Laskorainen ez da lehen taldea bakarrik kontuan hartu behar. Iaz, 21-22 mila euroekin osatu genuen, eta aurtan 26 milarekin moldatzea espero dugu; baina oraindik ez dira zenbaki zehatzak.

Zuzendaritzako kideei, jokalariei... diru jartzea tokatu zaizue.

Erabaki bat hartu beharra zego-



A. IMAZ

en, eta gogorra izan da. Horrela ematen baldin badu ere, ez da igoerarekin lotutako erabaki bat izan. Azkenean, jokalariei kuota bat jartzea erabaki genuen.

Eta zuek ere berdín egin duzue.

Eredua eman nahi baldin bada, gugandik hasita egin behar izaten da. Horrez gain, diru iturri berriak aztertzen ibili gara, bonoak direla edo zozketak direla. Jokalariek jarri dutena berreskuratzea nahiko genuke, ahal den neurrian behintzat.

Taldearen izena aldatzea aztertu al duzue?

Hitz egin dugu gai horren inguruan, baina beti ere, babesle indartsuren bat sartzen baldin bada. Aurrez, ordea, ikastolarekin hitz egin beharko litzateke; zer iruditzen zaien jakiteko. Hemezortzi urtetan babesa eman digun ikastola ezin da horrela batean utzi, hau beti elkarlanean egindako gauza bat izan da. Orain arte, zentzu batean, ez gara maila oso profesionaletan ibili, baina gauza seriotzen joan da. Kirol arloan ere, lagun arteko kontu bat zirudiena mailaz igotzen joan da.

Lehen taldeko jokalaria aztertzen hasita, ba al dago aldaketarik?

Bi baja garrantzitsu izango ditugu aurtan, azken bi kapitainek taldea utzi baitute: Andoni Saldiasek eta Unai Barriolak. Bestalde, berrikuntzen arloan, lau jokari berri etorri dira taldera; Lauburutik Lander Camio eta Lohitzun Sanz, eta Tolosa CFetik

Asier Etxeberría eta Xabi Diez. Azken hauek futbol handitik etorri dira, eta denbora bat beharko dute areto futbola egokitzeke. Entrenatzaile postuan Jabi Mujikak jarraituko du, eta bere laguntzailea orain Aitor Garzia izango da, lehen bigarren taldearen entrenatzailea zena.

Guztira zenbat talde ditu Laskorainek?

Bost, aurtan jubenilen talde bat aterako baita. Nagusiek in jubenilekin batera, bigarren taldea, kadeteena eta neskeena daude.

Zeintzuk dira denboraldiko helburuak?

Nagusien helburua maila mantentzea izango litzateke. Bigarren taldeak, printzipioz, harrobi lanak egin beharko litzuzke. Gazteek lehen taldera urratsa emateko prestatu beharko lukete. Neskak iaz txukun ibili ziren ligan, eta kopa irabazi zuten. Oro har, ez zaie irabaztea eskatzen, beste helburu batzuk bilatzen baitira.

Urratsa den arloan emango zenuen, ezta?

Erabakia zuzendaritzak hartu du, baina jokalarien oniritzia behar duzu horretarako; beraiek dira bidaiek eta sakrifizioak egingo dituztenak, baina horrelako aukera bat, agian, ez dute berriro edukiko. Ibarrekin areto futboleko jokatzeko nuenean, ezagutu nuen zer den hori; gogorra da, baina partidak jokatzerakoan sentitzen duzun ilusioa ez dizu inork kentzen.

EPAKETA GEHIAGORIK EZ ZIGOR GEHIAGORIK EZ

KONPONBIDE DEMOKRATIKOAK ORAIN!

MANIFESTAZIO NAZIONALA

Irailak 24 larunbata BILBO

KONTZENTRAZIOAK

Irailak 22, 19:00etan
Iruneuko Udaletxe plazan

Irailak 22, 19:30etan
Bilboko Arriaga plazan
Donostiako Udaletxe parcan

Irailak 22, 20:00etan
Andra Mari Zuriaren plazan

Kanporaketako hasiera txarrak atera ditu Otaegi eta Mujika finaletik

Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketan, Otaegi zazpigarrena izan da eta Mujika bederatzigarrena

Imanol Garcia

Eskuadeko aizkolarientzat ez zen izan egunik onena izan Arbizun (Nafarroa) jokaturako Euskal Herriko I. Mailako Txapelketaren kanporaketa. Joseba Otaegi zizurkildarrak zazpigarren egin zuen, eta ez zuen finalera pasatzetik izan 33 ehunenengatik. Jexumari Mujika ibartarrak bederatzigarren egin zuen. Biak, beraz, finaletik kanpo geratu dira. Kanporaketan izandako hasiera txarrak eragin zien biei, eta ezin izan zuten, iaz bezala, finalean sartu.

Otaegik zehaztu duenez, «pena handia» sentitu zuen hain denbora gutxiagatik finaletik kanpo gelditzean. «Borrokatu nuen aurrean gelditzeko, baina ez zen po-

sible izan», dio. Oker hasi zela dio, baina pixkana bere txandakoei pasatzen joan zen. Luis Txapategiri ere pasatu zion, baina ordurako bazekien, epaile batek esanda, hirugarren enborra ez zuela guttiz moztu. «Banekien azken enborra bukatzen nuenean, hirugarren enborrera itzuli behar nintzela, lana bukatzera», esan du. Hala egin zuen, baina tarte hori baliatu zuen Txapategik bere lana amaitzeko.

Aizkora txapelketak hain denbora gutxiagatik ez dira maiz erabakitzen. «Zaila da horrelakorik gertatzea», dio zizurkildarrak. «Urrezko Aizkoraren Txapelketan gertatu zitzaidan segundo bat baino gutxiagoko tartearekin erabakitzea, eta orduan nire alde izan zen. Orduko ordaina izango zen oraingoa».

Ez du gustukoa izan finaletik kanpo geratzea, baina bere alde ona ere ikusi dio horri Otaegik: Denboraldia beste modu batera ari naiz prestatzen. Urriaren 30ean apustu bat dut Xabier Zal-

duarkin Azpeitiko zezen plazan. Aizkoran eta korrikan lehiatuko gara. Euskal Herriko Txapelketaren finala apustua jokatu eta aste-betera da. Beraz, ondo etorriko zait apustua hobeto prestatzeko». Bost mila euro jarri dituzte jokoa bi kirolariek. Hamar kanaerdiko eta lau 60 ontzako ebaki behar dituzte, eta, ondoren, zortzi kilometro egingo dituzte korrikan.

«Gauzak nahasten joan ziren» Mujikari aurreneko egurrean adar begia atera zitzaion, eta hortik aurrera kanporaketa aldrebestu zitzaion. «Gorputzez ondo prestatuta nihoan», dio ibartarrak, «baina gauzak nahasten joan ziren». Lehenengo enborrean kortea itxi behar izan zuen, eta horretarako kolpe handiak eman zituen. Hurrengo enborretan ere berdina gertatu zitzaion, eta horrek psikologikoki mina egin zion: «Gaizki ikusten nuen kanporaketa. Atzeraka hasi nintzen, besteek aurrea hartzen ikusten nituen bitartean».

Halere, ez zen hain atzean gelditu. «Pixkana besteak harrapatzen hasi nintzen», gogoan du Mujikak, «baina ordurako zaila zen finalean sartzea». Esfortzu horrek, behintzat, onura ekarri zion: «Maila mantentzeko gai izan nintzen. Iaz igo ziren biak geratu ziren azkenak, eta horiek jaitsi dira». Txapelketak bukatu dira Mujikarentzat aurtengoz, baina laster Urrezko Aizkoraren lehiaketa hasiko da eta bertan parte hartuko du. «Ez naiz hain ondo moldatzen zutika diren lanetan, baina horretarako ere prestatu beharko naiz».

Floren Nazabalek egin zuen denborarik onena kanporaketan (18:56), eta Etxarrikoarekin batera, Lopez, Azurmendi, Olasagasti, Atutxa eta Txapategi sailkatu dira finalerako. Finala, azaroaren 6an jokatu da, Elizondon (Nafarroa Garaia). Kanporaketan azken bi postuan geratu zirenak, Jexumari Lasa eta Oihan Larretxea, hurrengo sasoian bigarren mailan ariko dira.

Judit Saizarrek bosgarren egin du Espainiako Triatloiko Junior Txapelketan

17 urteko leitzarra hirugarren postutik 40 segundora gelditu zen; taldeka, bigarren postua lortu zuen

I. Garcia Leitza

Judit Saizarrek podioan sartzeko asmoa bazuen ere, azkenean bosgarren postuan sailkatu zen Vigon (Galiza) jokatu zen Espainiako Triatloiko Txapelketan. 17 urte ditu Saizarrek eta junior mailan lehiatu zuen.

Leitzarrek hirugarren postutik 40 segundora amaitu zuen, eta laugarrenetik 13 segundora. Saizarren taldea, Lagunak-Saltoki Trikideak, bigarrena izan zen. Proban 1.500 metro igeri egiten, 40 kilometro bizikletan eta beste 10 korrikan egin zituen, hau da, Olinpiar Jokoetan egiten den distantzia. Bere denbora 1:11:47 izan zen.

Saizarrek Munduko Triatlon Cross Txapelketan, junior mailan, brontzezko domina lortu berri du, eta Nafarroako txapelduna da maila nagusian.



Judit Saizar. HITZA

Emaitza bikainak eskualdeko pilota elkarteek

I.G.

Ezker Hormako Gipuzkoako Txapelketan emaitza ezinhobeak lortu dituzte eskualdeko pilota elkarteek. Zazpi Iturrik jokaturako bost partidak irabazi ditu. Intxurrek, zazpi partidetatik seitan irabazle izan da. Aurrera Saiazek hamabi partida jokatu ditu, hirtan elkarteko bi talde elkarren aurka aritu direlarik. Beste bederatzietatik sei irabazi dituzte.

Bestalde, Zazpi Iturriko Gallurraldek eta Jakak asteburu boro-bila izan dute. Gallurraldek Lodosan irabazi du. Jakak, bere alde-tik, Bergaran eta Huarten.

↓ Ezker Hormako Gipuzkoako Txapelketa

Eskuz binaka kadeteak, 1. maila
Aurr. Salaz 2-Aurr. Salaz 1 22-20
Goierrri-Zazpi Iturri 11-22

Eskuz binaka kadeteak, 2. maila
Intxurre-Urnieta 10-22
Aurrera Salaz 1-Intza 2 22-1
Aurrera Salaz 2-Lapke 22-2

Eskuz binaka kadeteak, 3. maila
EPL 2-Intxurre 16-22

Eskuz binaka juvenilak, 1. maila
Azkoitia-Intxurre 1 21-22
Gazteleku-Intxurre 2 19-22

Hernani-Zazpi Iturri 8-22
Aurr. Salaz 2-Aurr. Salaz 3 22-10

Eskuz binaka juvenilak, 2. maila
Zazpi Iturri-Eibar 22-3
Aurr. Salaz-Usurbil 13-22

Eskuz binaka nagusiak, ohorezko maila
Aurr. Salaz 1-Aurr. Salaz 2 22-19
Zazpi Iturri-Hernani 22-11

Eskuz binaka nagusiak, 1. maila
Aurr. Salaz 1-Murumendi 22-18

Aurr. Salaz 2-Ilunpe 2 9-22
Azkoitia-Aurrera Salaz 3 14-22

Eskuz binaka nagusiak, 2. maila
Usurbil 1-Aurrera Salaz 1 22-9
Eskoriatza-Intxurre 10-22
Bergara-Aurrera Salaz 2 8-22

Eskuz binaka nagusiak, 3. maila
Gazteleku-Intxurre 2 13-22
Antigua 1-Intxurre 1 10-22

Eskuz banaka, nagusiak
Tartaloetxe-Aurrera Salaz 3-22
Usurbil-Zazpi Iturri 6-22

Hilberria eta eskertza

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



NIEVES GUTIERREZ SANTIAGO

Mariaje, gure maitasuna eta indarra zuretzat eta zure familiarentzat.

Amezketako Zumadi ikastetxeko irakasleak, gurasoak, ikasleak, eta beste langileak

2011ko irailaren 20a

-ESKER ONAK-

JOSEFA LARRAÑAGA ZABALETA

(Jose Martiarena Agirreraren alarguna)

Erremontxo

Beti umil! Beti atsegin!
Beti izango zaitugu bihotzean

-Goian bego-



Aurrez aurre eskerrak ematea ezinezko izan zaigunez, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu dolu minak eman dizkizuguzuen gutzietan eta haren arimaren aldeko elizkizunetara joan zaretenel.

Senideak

AZKOITIA, 2011ko irailaren 20a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

AZOKA

■ **Alegia.** Hilaren 25eko
V. Nekazal Azokan parte hartu
nahi duenak aste honetan
zehar eman ahal du izena
Inaxio Begiristain kultur eta
kirol etxean.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Atzeritartasunaren
gaineko legeari buruz hitz egite-
ko saioa gaur, 18:00etatik
20:00etara Kultur Etxean.
Saioa Tolosaldea Garatzen eta
Eusko Jauriaritzaren Immigra-
zio zuzendaritzak antolatu du.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L.
Amarotz auzoa, 9.
943 67 5118.
■ **Leitza.** Erbiti, O.
Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.


Agurrak



Zorionak!

Juan Larreta Jauregi (Amezketza).
Atzo 85 urte. Muxu handi bat
familia guztiaren partetik.

Irudia XIV. HITZA Argazki Lehiaketa



NATURA ETA ARKITEKTURA, OBJEKTIBOAN

Alegiako Alazne Casisek argazki hau bidali du: «Sakonetara joan
ginen goiz pasa eta argazki batzuk ateratzeko aprobetxatu genuen,
lekua zoragarria baita. Itsasoa mugituta zebilen eta olatuak har-
tzen zebiltzan surfari horietako bati atera genion argazkia». Bixen-
te Bidaolak berriz, Lanuzako urtegi atzean dagoen Foratata mendia
aukeratu du. Iñaki Agirresarobek ere mendian ateratako argazkia

bidali du: «Abuztu aldean Pirinioetan ibili garenez, Aspe haranean
artaldean otzan-otzan topatu dugu». Bukatzeko, Karmen Sanzek
arkitektura izan du hizpide: «Uda honetan Berlinek izan naiz eta
bertara joatea gomendatzen dizuet. Arrazoi asko daude eta horien
arteak gaur eguneko arkitektura ikusteko aukera izugarria dagoela.
Hauxe adibide bat: Sony Center» AC-KS-BB-IA.

**Bertako informazioari
bertako produktuak**

**Egin HITZAren
harpidedun**
urriaren 31 baino lehen
eta jaso
artzai gazta,
Idiazabal
jatorri izenarekin,
OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean,
azaroaren 2an,
asteburu bat zotz egingo dugu
Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.